

# Etxealdia ez da itxialdia



**ARKAITZ ZARRAGA  
AZURMENDI**  
EUSKARA IRAKASLEA

**E**txealdi gogorra gurea! Inork irudika ez zezakeen egoera kafkarra. Martxoaren 17ko Teleberria astebete lehenago jarri baligute, ziplo eroriko ginen gehienok. Baina joan gara egokitzen; harrituta edo ikaratuta, baina etxean, zintzo.

Guztiok izan dugu hausnarketa sakinik, gehiegizko kontsumoaz, benetako lehentasunez edota txarrago daudenen egoeraz. Presoak ere izan ditugu gogoan. Inoiz baino gertuago sentitu ditugu. Pentsatu dugu, nolabait, gu ere preso gaude-la, soma dezakegula zer sentitzen duten. Baina haiek ez daude etxealdian, itxialdian baizik. Pentsa zein handia den alde-a, herri gehienetan itxialdikoak etxealdira bidali dituzte, gurean ez bezala.

Itxialdian ez dago bizkotxoak egiterik, ezta internet bidezko zumba saiorik ere. Osasuna ere ez dute bermatuta. Protokolorik gabe dabilta, funtzionarioek sar dezaketen birusaren mehatxupean. Babes neurri nagusia itxialdia estutzea izan da.

Etxealdian dendara irteteko aukera dugu, eta tranpak egiteko, orain ogia, orain esnea erostera irtenda. Itxialdian ekonomatuak itxi egin dituzte! Akabolar zitekeen janari duin bakana. Eskuar-tean edo pantailan duzun aldizkari hau ere, ez zaie heldu hainbat astetan, inprimatzeak zekartzan arriskuak direla eta.

Itxialdian daudenei, etxekeo zaintza eta beroa ere ukatu dizkiete. Eta txarre-na da ez dagoela argi noiz itzuliko diren bisitak, Cádizera hainbat probintzia baitaude, eta denek gainditu beharko dituzte fase guztiak, senideak bertatik pasa daitezen.

Bisiten ordez, etxealdian oso ohikoa izan den zerbait eman diete: lau dei gehiago eta bideo-deiak (kartzela batzuetan). 40 minutuko bisita edo 2-3 orduko *bisabisaren* ordez, 10 minutuko bideo-deia. Baina ez dira bideo -poteo, -batzar, -eskolak... 10 minutuko dei iheskorra baizik. Hiru senideko etxean hiruna minutu, zailtasun teknikorik ez bada.

Argi dago bideo-deiak ez direla nahikoa, baina ezin dira alarma egoerara mugatu. Euskara ikasteko ere, adibidez, funtsezko baliabidea litzateke, eta berdin Moodle plataforma bidez ikasteko aukera ere. Etxealdian probatuta, bada-kigu ez direla oso tresna arriskutsuak.

Komunikabideetan etxealdiaz eta deseskalatzeaz ari dira etengabe, baina, itxialdiaz zer? Neurrien zerrendetan ez dira ageri, eta premia dugu; berotzen hasi da Espainia sakonean, eta ziegetan neguko arropak dauzkate.

Preso gehienek 5. fasean beharko luke-te, kalean, edo etxealdian gehienez ere. Deseskaladan ez, jada rapelatzan egon beharko ginateke. ●

# Errota solas



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

**A**itor dut, konfinamenduak iraunduen zortzi asteetan behin baino gehiagotan pasatu dudala kilometroko distantzia, Baionan zeharreko ene oinezko ibilaldietan. Naizen ele-eiherak, aldi honetan, isiltasunaz eta bakartasunaz gozatzeko aukera ukan du. Ohartu naiz hiriaren iparreko eremuak ez nituela batere ezagutzen eta eihera aztarnez aztarna paseatu naiz, haizeak, ibaiek edo itsas mareek bultzatu harri artean denbora nola ehotzen zuten ene begiz ikusteko xedez.

San Bernard auzoan, Habasko oiha-nean edo Bachefores eskualdean badira oraino, ene haurtzaroko josta leku

zen Uhane ibai ertzeko eihera handiaren pareko egoitzak. Hura ere, Baionakoan antzera, utzikieriaz suntsitzen joan da, baina gelditzen da beti miresgarri, Artzamendiko harkaitzetan ebaki errota-ren borobil perfektua. Zirkulu horren baitan gaude, eskerronez eta salbatuak, zekale edo espelta irina bezala ehoak, ogi bilakatzeko bidean.

Urrats debekatu horien karietara asko ikasi dudala uste dut eta nolabait ere, barnez aldatu naizela, birrindu agian edo ahurtaraz oratu. Labetik ateratzen naizela dirudit, jateko eta janari izateko gogoz.

Maskara jantziko dut sarri. ●